



**LEGAZPIKO  
UDALA**

# **Legazpi BAI! PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIO-PLANA**

**2009 – 2010 ekitaldia**

**2009ko iraila**



**LEGAZPIKO  
UDALA**

## 1. SARRERA

Dokumentu honek 2009-2010urteko Legazpi BAI! Proiektuaren Komunikazio-Plana jaso eta deskribitzen du.

Legazpi BAI! proiektua 2005ean jarri zen abian, eta herriaren garapenean onura sortzeko beste eredu bat bultzatu eta sustatu nahi du, etorkizuneko garapenari dagozkion nondik norako eta aukeretan sakontzeko; baina horretarako bestelako ikuspuntua erabili nahi luke: Ezagutzan oinarritutako garapenaren ikuspuntua, hain zuzen ere. Ikuspuntu horretatik begiratuta, Legazpi etorkizuneko eta **h**arduteko proiektua garatu zuen; hori bideratzeko, nortasuna eta nortasun horren balio gidariak kontuan izan zituen, hortik abiatuta era sistemikoan eta parte hartzailean etorkizuna garatzeko. Horretarako, gogoeta orokorra egin zuen udalerrriaren lehenari, orainari eta geroari buruz, zer aukera egon daitezkeen eta etorkizunean nondik nora jo daitezkeen aztertzeko.

Urte eta erdian geldi egon ondoren, Legazpi BAI!-k indarra hartu eta berriz ekin dio lanari. Gogoetaldiaren ondoren, proiektuaren markoa zein den zehaztu da; teoria berriak, joera eta egoera sozioekonomikoak kontuan izanda zehaztu ere; horrela, proiektua prest dago ahalik eta toki gehienetan jakinarazteko, bai Gipuzkoan, bai EAEn, bai Estatuan, bai mundu osoan ere.

## 2. HELBURUAK

Proiektua zehaztu ondoren, komunikazio-plan honen helburu nagusia zein den azalduko dugu, honako hau, hain zuzen ere:

### **Legazpi BAI!-ren helburuak eta lan-plana jakinarazi eta jendartean zabaldu**

Komunikazio plan honen eragina ahalik eta handiena izan dadin, planaren beraren barruan honako bi atal hauek sortzea erabaki dugu: Barruko Komunikazioa eta Kanpoko Komunikazioa; izan ere, helburuak eta komunikatzeko moduak aldatu egiten dira udalerrian izan, edo kanpoan izan.

### 2.1. BARRUKO KOMUNIKAZIOA

Barruko komunikazioak esan nahi du Legazpi BAI!-ren proiektua herritarren artean zabaltzea; baita Legazpin diharduten gizarte- eta ekonomia-erakundeen eta erakunde publiko eta pribatuen artean ere. Barruko Komunikazio Plan honen helburua euskarri hauen gainean oinarrituko da:

- **Herritarrei helarazi eta aditzera eman** proiektua zein markotan / arlotan / esparrutan ariko den, zein diren helburuak eta lan-plana; baita Legazpin diharduten gizarte- eta ekonomia-erakundeei eta erakunde publiko eta pribatuei ere.

- **Iritziak eta kezak jasotzea.** Herritarrek eta erakunde horiek proiektuari eta Legazpiren etokizunari buruz dituztenak.
- Proiektuan **edonork parte har dezakeela** ikusarazi.
- Proiektuan zehaztutako arloen garapenean parte hartzeko **herritarrak geureganatu eta irabazi**; baita Legazpin duharduten gizarte- eta ekonomia- erakundeak eta erakunde publiko eta pribatuak ere.


## 2.2. KANPOKO KOMUNIKAZIOA

Legazpi BAI!-ren proiektua Legazpitik kanpo jakinaraztea eta jendartean zabaltzea: horixe da Kanpoko Komunikazioaren helburua. Urola Garaian, Gipuzkoan, EAEn, Estatuan eta mundu zabalean jakinarazi nahi dugu proiektua. Horren helburu zehatzak, berriz, honako hauek dira:

- Legazpitik kanpoko erakunde publiko eta pribatuei **helarazi eta aditzera eman** proiektua zein esparrutan ariko den, zein diren helburuak eta lan-plana.
- Legazpi BAI!-ren antzeko beste proiektu eta ekimen batzuekin **harremanak finkatu**, ezagutza eta esperientziak trukatzeko eta sinergiak eta elkarri zein arlotan lagun diezaiogun aztertzeko.
- **Lankidetzaren sare egonkorra** ezartzea, finantziario-lerro eta -laguntzak lortzeko.
- **Harreman-sareak eraiki**, Tokiko eta Lurraldeko Garapenari buruzko **joera eta teoria berrien izateko**.

## 3. NORENGANA HURBILDU NAHI DUGUN

Ondoko irudiak laburbiltzen du norengana jo nahi dugun, kontuan izanda komunikazioa barrurako den, herriari begira alegia, edo kanporako den, hau da, herritik kanpoko erakundeei begira den.



## 4. KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

### 4.1. BARRUKO KOMUNIKAZIOA

Proiektuaren *barruko komunikazioak* markatutako helburuei ekiteko, aurreko irudian helburutzat hartu dituen taldeei-eta Legazpi BAI!-ren proiektua aurkeztuko diegu.

- Udaleko langile guztientzako aurkezpena *Udaletxean bertan* egingo da, eta bakarra izango da.
- *Beste taldeei-eta* aurkezteko, Udal Batzordeak erabiliko dira, hasieran behintzat. Talderen batzuek pertsona kopuru handia ordezkatzeko balute, horietako bakoitzarekin adostuko genituzke aurkezpenak. Horrela, ahalik eta herritar gehienengana iritsi nahi dugu.
- Proiektuan garatutako emaitzak, berriak, proiektuak, ideiak eta abar Udalak hiru hilabetetik behin kaleratzen duen KONTSEJUTIK aldizkarian argitaratzea.

### 4.2. KANPOKO KOMUNIKAZIOA

Arlo honetan adierazitako erakundeekin aldeztatik egindako hitzorduen bidez ekingo diogu *kanpoko komunikazioari*, beti ere horretarako egoki diren pertsonen bidez.

Era berean, ondoko osagaiek ere eginkizun handia izango dute, bai kanpoko komunikazioan, bai proiektuaren irudian:

#### 1. LEGAZPI BAI!-REN IRUDI-LOGOA

Logotipoa sinbolo, forma, kolore, eta hizkiz osatutako multzoa da, eta marka bati atxikitzen zaizkio, eta haren identitate korporatiboa islatzen dute. Logotipoa ordezkatzeko duen markak eta erabiltzaile eta xede-taldeek elkarreragiten duten aldi eta alde guztietan egongo da presente. Logotipoa elementu grafikoa da, ikus-hitzezkoa edo entzunezkoa eta pertsonen, enprezen, erakundeen eta produktuen beren irudia agerrarazteko balio die. Oro har, logotipoek ordezkatzeko dituztenen seinale eta sinboloak izaten dituzte.

Legazpi BAI!-k, gainera, proiektuaren irudi korporatiboaren irudia izango du bere komunikazio-estrategia den aldetik; erraz irudikatu eta ezagutu beharko dute xede-taldeek. Hori horrela izan dadin, Legazpi BAI!-ren logotipoak honelakoa izan behar du:

- 1) **Gogoan erraz hartzeko modukoa.** Proiektuan esku hartu behar duten pertsonen logotipoa behin ikustea nahikoa izan behar dute bera gogoratzeko; baita zein proiektu ordezkatzeko duen ere.
- 2) **Adierazgarria.** Logotipoak proiektua ordezkatu behar du, eta nolabait bereziki propio izan behar du.
- 3) **Bakarra.** Merkatuan dauden beste logotipoak ez bezalakoa izan behar du: inoren antz handirik ez duena.
- 4) **Sinplea.** Zenbat eta sinpleagoa (forma gutxiago, kolore gutxiago), hobeto. Horrelakoak errazago gogoratzen dira.
- 5) **Berezia.** Legazpi BAI!-ren antzeko proiektuek dituzten logotipoak ez bezalakoa izan behar du: oso bestelakoa, izan ere.

- 6) **Praktikoa.** Handiagotzeko eta txikiagotzeko modukoa izan behar du, eta grisez eta txuri-beltzean irudikatzeko modukoa ere bai; hala egiten denean, irakurtzeko modukoa izan behar du, eta hainbat materialetan irudikatzeko aukera izan behar du (paperean, oihalean, plastikoan, kristalean eta abarretan); xehetasunik galdu gabe, izan ere.
- 7) **Xede-taldeei egokitua.** Estetikari, edukiei, kolorei eta abarri dagokienez, helburu dituen taldeei egokitua izan behar du.
- 8) **Profesionala.** Diseinu grafiko eta profesionalak sendotasunaren eta seriotasunaren itxura ematen du.
- 9) **Iraunkorra.** Behar bezain modernoa edo “fashion”-a izan beharko du, une hauetako joera teorikoekin bat, baina ez dadila galkorra izan.

## 2. LEGAZPI BAI!-REN WEB ORRIA

Gaur egun, Web orria oinarrizko edo gutxieneko komunikazio-tresna da edozein erakunde, proiektu edo ekimenentzat, beren nondik norakoaren eta ekintzen berri erabiltzaileei emango badie. Baina, zalantzarik gabe, ekimen eta erakunde jakin batzuentzat komunikazio tresna ahalsua da. Urte gutxiren buruan bilakaera zorabiagarria izan du, erabiltzaileekin denbora errealean elkarreragiteraino.

Legazpi BAI!-k aparteko web orria izan dezala proposatzen da; hau da, domeinu egokia eta pribatua duela, eta Udaleko web orritik kanpo, **“Legazpi BAI! guztiona da”** jendartean zabaltzeko.

Web orriak komunikazio argia izan beharko du, eta beharrezkoa izango da *edukiak zehaztea, ez beteegia izatea, bisitariei egokitua* komunikazioaren *Web 2.0 teknologia berriak* eta abar txertatu beharko ditu. Web orriak Legazpi BAI!-ren informazio publikoa (aurkezpena, kokalekua, historia, proiektuaren filosofia, lan-esparruak, proiektuak eta abar); baita udalerraren edo proiektuaren garapenerako gertaera garrantzitsuak ere.

Web orriak, besteak beste, honako hauek izan beharko ditu:

- Hizkuntza pluraltasuna izan behar du herritar guzti-guztiek sarbidea eta parte hartzeko aukera izan dezaten; baita Lurraldeko Garapenaren esparruan erreferentzien bila ari diren mundu zabaleko erakunde eta proiektuek ere.
- Domeinu egokia eta deskribatzailea izatea.
- Erabiltzaileek erabilitako bilatzaile ezagunen eta erabilienetan izen ematea.
- Web 2.0 teknologiak eta Gizarte-sareak (Twitter, Facebook eta abar.) eranstea.
- Dinamikoa izan dadila eta parte hartzea bultzatzea.

## 3. KONGRESUETAN ETA JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA

2010ean Legazpi Bai!-ren lanaren eta garapenaren esparruarekin zerikusia duten jardunaldiak, mintegiak eta kongresuak identifikatuko dira, Legazpi BAI! Ezagutzan oinarritutako Tokiko eta Lurraldeko Garapenaren erreferentzia-proiektu gisa aurkezteko. Jardunaldi, mintegi eta kongresu horietara bertaratzeak, besteak beste, honako hauek egiteko aukera emango digu:


- Legazpi BAI! Ezagutzan oinarritutako Lurraldeko Garapenaren erreferentzia-proiektu gisa aurkeztea.
- Legazpi BAI! aukerako bazkide-edo gisa aurkeztea, proiektu europearretarako eta oro har lankidetzatza proiektuetarako.
- Legazpi BAI! zenbait sareren kide gisa aurkeztea, Lurraldeko Garapenean erreferentzia-proiektua eta berritzailea izan daitekeen aldetik.

#### 4. PRENTSA IDATZIETAKO KOMUNIKAZIOA

Legazpi BAI! proiektuak sortutako ekintzak, proiektuak, ideiak eta abar. herriko eta lurraldeko prentsan zabaldu nahi dira, herrian eta lurraldean pizgarri izateko eta bultzada emateko asmoz. Hiru dira Legazpiko kontuen berri ematen duten hedabide idatziak: DV, Diario de Noticias de Gipuzkoa eta Goierriko Hitza.

#### 5. ZABALTZEKO OINARRIZKO MEZUAK

Ondoko irudiak xede-taldeein helarazi nahi zaien oinarritzko mezuak laburbiltzen ditu:



#### 6. EGUTEGIA

Ondoren egin beharreko jardueren egutegia zehazten da:

Ekintzak	2009				2010											
	9H	10H	11H	12H	1H	2H	3H	4H	5H	6H	7H	8H	9H	10H	11H	12H
Udaletxean bertan aurkeztea																
Herriko erakunde sozial eta ekonomikoei aurkeztea																
KONTSEJUTIKen argitaratzea																
Herriko eta eskualdeko prentsan zabaltzea																
Erakunde Publikoetan, ... elkarrizketak																
Proiektuaren irudi-LOGOaren garapena																
Proiektuaren Webgunearen garapena																
Kongresu, Mintegi eta abarretan parte hartzea																

Egutegi hau gutxi-gorabeherakoa da; izan ere, proiektuaren webgunea eta irudia garatuko badira, dagokion aurrekontua onartu egin beharko da.